

Aitor Encinas | BILBO

Bilboko kaleetan orain dela gitxi arte hain eza-gunak izan diran behien adarrak eta marrumak oraindino badagoz hiriburuko zenbait lekutan.

Igaz, Bilbao Fundazioa 700-III Mileniumek *Behiak!* izeneko erakustaldia udan antolatu eban, eta Kaikuk proiektuan parte hartzea erabagi eban. Guztira hoge eskultura babestu zituan Kaikuk. Horretako, Bilboko ikastetxeetako umetxoei proposatu zitzaizen Kaikuren zortzi eskultura margoztu eiezan.

Izan be, zortzi behi hauen eskultura ikusteko eta gozatzeko aukerea ez dago Kaikuko bertoko lantegietan. Zapatuan, Kaikuk behien eskulturak emon eutsazan Bilboko ikastetxe egile bakotxari, eta hemendik aurrera, hauetan erakutsiko dira Bilbao Fundazioak antolatutako erakustaldiaren gomutaren moduan.

Honen adibidea dira, hain zuzen be, Felix Serrano; Eskolapioak; La Salle-Santiago Apostol; Luis Briñas; eta San Ignacio ikastetxe publikoak; eta, Urretxindorra, Kirikiño eta Lauro ikastolak.

Erakustaldi honen bitartez, gaur egun Euskal Herriko dagozan ikastetxeen eredu aniztasuna erakutsi gura izan dabe, eta guztira ehunka umek hartu dabe parte.

Umeek oso gustora egin eben behien atonketa lana

Bilbao Fundazioak egin eban erakustaldian parte hartzeko orduan, Kaiku esne-enpresak zozketa egin eban Bilboko ikas-



XOUSA SIMAL

BEHIEN AZKENENGO AZTARNAK. Felix Serrano ikastetxeko ikasleak, igaz atondu eben behiaren ondoan.

Behi adoratuak

FELIX SERRANO IKASTETXEKO BEHIA. Zapatuan, Kaikuk emon eutsazan Bilboko ikastetxe bakotxari igaz atondutako behiak.

tetxe horreek aukeratzeko. Hauen artean, Indautxu auzoko Felix Serrano ikastetxe publikoa izan zan aukeratua. «Zozketa egin eben ikastxe guztien artean, eta guri esan euskuen parte hartzeko. Orduan, eskaintzari baietz esan geuntsan zailantza barik», adierazo eutsan

Bizkaia-ri Begoña Amezaga Felix Serrano ikastetxeko zuzendariak.

Orokorrean, Bilboko ikastetxe eta ikastola batzuetan bospasei mutil-neska taldeak antolatu ziran behien atonketa egiteko. Beste batzuetan, orde, ikasgela bateko ikasleek parte

hartu eben. Holan, Lauro ikastolan, adibidez, lau eta bost urteko 250 umek parte hartu eben Kaikuren behia apaintzeko.

Kaikuk egin eban behia margoztearen proposamenari oso ondo aurre egin eutsien Felix Serrano ikastetxeko ikasleek. Begoña Amezagaren berbetan,

edozein proposamen aurrean beti dago norbait edozein gauza egiteko prest. «Oso gustura egin eben umetxoek lana», adierazo eban Begoña Amezagak.

Proiektu honetan Felix Serrano ikastetxeko ikasle guztiek parte hartu dabe behia margozteko eta apaintze lanetan. «Ikastetxeko ume guztiek partu hartu eben, lehenengo mailatik azkenaraino. Bakotxak bere erara eta egin ahal dauen moduan. Ume txiki-txikiek be bai parte hartu eben», esan eus-kun Begoña Amezaga zuzendar-riak.

Behiak atontzeko gaia erabat librea izan zan erakustaldian

Igazko *Behiak!* erakustaldian, Kaiku esne-enpresaren behien eskulturak atontzeko lanetan, gaia erabat librea euki eben aukeratutako Bilboko ikastetxeetako ikasleek.

Indautxuko Felix Serrano ikastetxeko zuzendari Begoña Amezagak adierazo ebanez, ikastetxearen esku laga eban Kaikuk behia margozteko lana. «Gaia guk eukeratu genduan. Kaikuk gure kontura itzi eban behia atontzeko gaia», esan eban Begoña Amezagak.

Izan be, Bilboko ikastetxeetako ikasleek gain, Kaikuren beste hamabi eskulturagaz zenbait herrialdetako artistek parte hartu eben. Hain zuzen be, Euskal Herriko artistak aritu ziran pintaketa lanetan, edo Euskal Herrian bizi diran artista atzerriarrak. Artista hauek be gaia erabat libre euki eben behia atontzeko. Behi bakotxaren apainketak bere esangura euki eban igazko *Behiak!* erakustaldian.

LABURREAN

BILBO

Alkohola edanda gidatzen joazan zortzi pertsona atxilotu ditue asteburuan

Azken asteburuan zortzi pertsona atxilotu ditue ustez trafiko segurtasunaren kontrako delitua egiteagaitik. Antza danez, atxilotuak alkoholaren efektuen edo estupefaziante-sustantziaren menpean kotxea gidatzen eben, Bilboko Udaltzaingoak jakinarazi dauenez. Horrezaz ganera, zortzi atxilotze hauetatik bost beste kotxe istripu batzuekin zerikusia euki eben azken asteburuan. Hain zuzen be, Bilbo hiriburuan guztira 41 istripu gertatu dira azkenengo asteburuan, eta zortzi lagun zauritu dira. Ganontzeko istripuetan kalte-materialak izan ziran bakarrik. Beste alde batetik, Bilboko Poliziak esan dauenez, Bilbo hiriburuan *Alkoholemia Prebenitzeko eta Estupefaziante-Droga edo antzekoak atzemateko* programa martxan jarri zanetik, era askotako detektagailuak ezarri dira Bilboko hainbat lekutan. Guztira programa honen arabera, 33 alkoholemia proba egin ditu Bilboko Udaltzaingoak.

BILBO

Gazte bat atxilotu dabe taxista bati ez ordaintzeagaitik

Hamazortzi urteko mutil gazte bat —I.R. de D.— atxilotu eben atzo Bilbon, Kalamua kalean, taxi gidari baten zerbitzuak ez ordaintzeagaitik, Bilboko Udaltzaingoak jakinarazi dauenez. Taxista batek poliziari laguntza eskatu eta gero, agenteak gertaerearen lekura gerturatu ziran eta gaztea droga-psikotropiko baten menpean egoala ohartu ziran. Ganera, gaztearen identifikazioa egin ebenean, gazteak estupefaziante sustantziak osatutako hamahiru poltsa txiki poltsikoan ebazala atzeman eben Bilboko agenteek.

MENDIA

Mikel Alvarez mendigoizale bilbotarra Vinson mendia igotzen saiatu da

Mikel Alvarez mendigoizale bilbotarra urtarrilaren 18an Vinson mendiko (Antartida) lehenengo basera heldu zan, eta atzo gailurrera ailegatzen saiatzen hasi zan. Mikel Alvarez Vinson mendiko tontorrera heldu ezker, bere seigarren gailurra izango litzateke, Aconcagua, Elbruz, Kilimanjaro, Mackinley-Denali eta Everest mendietara igon dalako mendigoizale bilbotarra. Mikel Alvarezen berbetan, eguraldia aldatzen egoan azken egunotan, eta horrexegaitik, lehenbailehen tontorrera heltzea ezinbestekoa zan. Vinsonarentontorrean Bilboko alkateagaz berba egiteko espero dau mendizaleak. Mikel Alvarezek adierazo dauenez, Antartidatik etortzean bere lagunarekin Carlos Garcia eskalatzaile nafarrarekin alkatuko da Patagonian, eta biak elkarregaz Fitzroy mendia igotzen saiatuko dira. Carlos Garciak be urtarrilaren 18an urten eban Patagoniarantz bakar-bakarrik Cerro Torre mendia eskalatzeke asmoz.